

*Begoña Bilbao eta Karmele Perez irakasleek liburu bana argitaratu dute*

# "Testuliburu gehienetan euskal kulturako alderik folklorikoena ageri da"

■ **Nora García-Inés**

Utriusque Vasconiae argitaletxeak curriculumari buruzko bi liburu argitaratu berria du. Bata, Karmele Perez Urreza UPV/EHUko Gasteizko Irakasleen Unibertsitate-Eskolako irakaslearen 'Curriculum eta testuliburu Euskal Herrian', bestea Begoña Bilbao UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate-Eskolako irakaslearen 'Curriculum eta kultura Euskal Herrian'.

Bi irakasle hauek Gurutze Ezkurdiarekin batera burututako ikerketa zabal batean kokatu behar dira kaleratu diren bi lanak. Honela, Euskal Herrian 1925etik 2000 urte bitartean argitaratutako testuliburuak hartu eta datu-basea burutu ostean, ikerlari bakoitzak bere ikerbideari ekin zion. Ikerketa haien emaitzak dira liburu biak, UPV/EHUko Didaktika eta Eskola-Antolakuntza Sailean burututako dokto-re-tesiekin batera. Kaleratutako bi ikerlanak ordea, tesien bertsio erraztuak dira, dibulgazio mailakoak, eta batez ere, hezkuntzako irakasle, ikasle zein profesionaleri eskaini zaizkie. Bi liburuk UPV/EHUko Euskara-Errektoreordetzaren laguntza jaso dute eta bietan testuliburu hiru aro bereizten dira, hala nola, 1876 eta 1974 urte bitartekoa, 1975-1990ko garaia eta 1990-2000 epea.

## Curriculumaren inguruan

Euskal Herriko eskoletan XX. mendean izan diren curriculumak arakatzeko Begoña Bilbao 'Curriculum eta kultura Euskal Herrian' izeneko bere liburuan, abiapuntua 'ingurunearen jakintza' arloa izanik. Irakasle honen aburuz, "erdarazko zein euskarazko testuliburuetan euskal kulturako alderik folklorikoena, paisaia turistikoena, ageri da. Ikasleari ematen zaion ingurune hurbileko irudia aztertzerakoan, baieztatu dezakegu Euskal Herriaren eta euskal kulturaren azaleko agerpena aurkitu dugula testuliburuetan. Euskal Herriari buruzko edukia modu



Begoña Bilbao eta Karmele Perez

desberdinetan testuinguratzen badira ere, gutxi dira ikuspegi soziokulturetik lantzen diren edukia, hau da, Euskal Herrian kokatzen direnak".

*"Argitaletxeak bertako testuingurua abiapuntutzat hartuta bileratzen dira"*

Gasteizko Irakasleen Unibertsitate-Eskolan irakasle lanean diharduen Karmele Perezek 'Curriculum eta testuliburu Euskal Herrian' izenburudun bere

liburuan "testuliburuak irakaskuntzan duten protagonismoa eta euskal hezkuntzako merkatu-sarean sarrera duten argitaletxe bakoitzak lanbideen trataeran erakusten duten jokabidea" aztertzen ditu. Ondorioetan ageria da argitaletxeek, Perezen ustetan, "orokorrean ez dutela beti berdin jokatzeko, ez eta ikuspegi bera agertzen ere aldagai desberdinen azalpenetan. Muga administratiboak gaudituz eta, testuliburuaren politika, baldin eta eragingarria izango bada, bertako testuingurua abiapuntutzat hartuta bideratzen dira".

Paulo Iztueta Utriusque Vasconiae argitaletxearen editoreak pozik agertu zen liburuaren aurkezpenetan. "Bi arrazoiengatik: batez ere, niretzat ohore bat da liburu hauek ateratzea, pena merezi baitute. Bestetik, liburu hauen atzean ikerketa-lan handia dago, guxtienez sei bat urtetako ikerketa". ✓